

Atxikitzeko dokumentua

EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN PROGRAMA

2030



Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030 Programa 2021etik aurrera Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak eta Ogasun eta Finantza Sailak bultzatzen duten ekimena da. Programak euskal administrazioek erosketan eta kontratazioan ingurumen-irizpideak barneratzea ez ezik, horiek beren gain hartzea ahalbidetzen duen jarduerasparrua ezartzen du.

Euskadiko 2030erako Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programak, bere eginkizunaren eta printzipioen bitartez, honako **erronka** hauei heltzen die:

- Erosketa berdea esparru juridiko-politiko sendo batean finkatzea, eta Euskadiko ingurumen eta ekonomia arloko lehentasunezko politika eta helburuetarako babesa bermatzea.
- Erosketa publiko berdea sendotzea euskal administrazio osoan, erakundeetan egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtuz.
- Erosketa berdea euskal sektore pribatuan ere inplementatzea, beren balio-kateen bidez merkatua bultzatzeko duten potentzialagatik.
- Merkatu berdea kalitatezko euskal eskaintzarekin garatzea, lehiakorra eta prestatua, ETEei arreta berezia eskainiz.
- Jarraipenerako sistemak hobetzea eta Euskadiko kontratazio berdearen inpaktuak eta onurak bistaratzea.



IKUSPEGIA

Euskal sektore publiko eta pribatuaren erosketa-ahalmena modu bikainean eta merkatuarekin koordinatuta erabiltzea, garapen sozioekonomiko jasagarria lortzeko, eta, aldi berean, ingurumenaren babesa, enpresen lehiakortasuna eta Euskadiko pertsonen ongizatea maximizatzeko.



PRINTZIPIOAK

- Koherentzia
- Gardentasuna
- Erantzukidetasuna
- Lankidetzeta
- Eraginkortasuna eta berrikuntza
- Sentsibilizazioa eta profesionalizazioa

Euskadiko 2030erako Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programak honako **helburu kuantitatibo** hauek ezartzen ditu:

AGINTE-TAULA INTEGRALA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	2030 HELBURUA
Programari atxikitako erakunde publikoen kopurua	150
Garapen Iraunkorraren Helburua: 12.7.1 adierazlea (90etik, ingurumen-irizpideen arabera kontratazioari buruzkoa) ¹	82
Erosketa publiko berdearen ehunekoa Programan lehenetsitako kategorietan (eta kontratazioaren globalean) ²	% 75 (% 60)

¹ Ingurumenaren Nazio Batuen Programak definitutako metodologiaren arabera kalkulatua (<https://www.oneplanetnetwork.org/resource/spp-index-methodology-sdg-indicator-1271>).

Adierazle honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 100 da; 90ekoa da soilik ingurumen-aldagaia txertatzen bada erosketan eta kontratazio publikoan.

² Ehunekoak adierazten du erosketa publiko berdearen maila, bai kontratu kopuruari bai balio ekonomikoari dagokionez, programa honetan lehenetsitako kategorien barruan. Parentesi artean agertzen den ehunekoa gauza bera da, baina kontratazio publiko osoa kontuan hartuta. Erosketa publiko berdea neurtzeko modua hala lizitazio kopuruari nola balio ekonomikoari dagokionez, bat dator Europar Batasunak erabiltzen duen irizpidearekin.

Eta ingurumen-onura handienak lortzeko, ondasun, zerbitzu eta obra **kategoria** hauek lehenesten ditu:

LEHENTASUNEZKO KATEGORIAK

erosketa edo kontratazioa eta horiei lotutako zerbitzuak



**Obra zibila eta
azpiegiturak**



Elikadura



Ibilgailu arinak



**Eraikuntza eta
urbanizazioa**



**Lorezaintza /
Berdeguneak**



**Ibilgailu
astunak**



Altzariak



**Energia
elektrikoa**



**Ekipo
informatikoak**



Ehunak



Argiteria publikoa



**Inprimaketa-
ekipoak**



Azkenik, Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programaren hedapena honako **10 jarduera-lerroen** bidez egituratzen da, eta ondoren 21 ekintza zehatzetan banakatzen dira:

Jarduera-eremua	Línea de actuación
<p>1. eremua: Erosketa eta kontratazio berdea sendotzea, Euskadiko politikak hedatzeko funtsezko tresna gisa</p>	<p>L1: Erosketa berdearen zeregina indartzea euskal sektore publiko osoaren esparru politiko eta juridikoan tresna operatibo gisa.</p> <hr/> <p>L2: Erosketa berdea Euskadiko ingurumen eta ekonomia lehentasunekin lerrokatuta dagoela bermatzea.</p>
<p>2. eremua: Euskadiko sektore publiko eta pribatuaren erosketa eta kontratazio berdearekiko konpromisoan aurrera egitea</p>	<p>L3: Euskal sektore publiko osoaren parte-hartzea lortzea.</p> <hr/> <p>L3: Euskal sektore publiko osoaren parte-hartzea lortzea.</p>
<p>3. eremua: Erosketa eta kontratazio berdea erakundeetan egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtzea</p>	<p>L5: Inplementazio sistematiko eta estrategikorako baliabideak ematea.</p> <hr/> <p>L6: Erosketa eta kontratazio funtzioa profesionalizatzea inplikaturako langile guztien artean.</p>
<p>4. eremua: Merkatu egokia, kalitatezkoa eta prestatua izatea</p>	<p>L7: Merkatuarekiko elkarrizketa eta lankidetzatza sustatzea, irtenbide berritzaileago, jasangarriago eta lehiakorragoak aurkitzeko.</p> <hr/> <p>L8: Enpresa hornitzaileak prestatzea, bereziki ETEak, kontratatzaileen ingurumen-eskakizunei aurre egiteko.</p>
<p>5. eremua: Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea</p>	<p>L9: Ingurumenaren aldetik jasangarria den erosketa eta kontratazioaren ezarpena neurtzea eta onurak zenbatzea.</p> <hr/> <p>L10: Euskadiren aurrerapenak eta lorpenak komunikatzea eta sustatzea, Euskadin bertan, European zein nazioartean.</p>

PROGRAMARA ATXIKITZEA

BALDINTZAK ETA KONPROMISOAK

Programak izaera parte-hartzaile irekia du, eta erosketa eta kontratazio publiko berdearekin konpromisoa hartu nahi duen euskal sektore publiko osoaren borondatezko atxikimendua sustatzen du.

Atxikimendu horrek dakarren konpromisoak ez du soilik ingurumen-inpaktuen murrizketa bultzatzen; baliabide publikoen kudeaketan gardentasuna eta eraginkortasuna handitzen ditu; merkatuan produktu eta zerbitzu lehiakorrago eta ingurumenarekiko errespetuzkoagoen berrikuntza sustatuz eredugarri jokatzeari ere badakar; eta, azken finean, herritarren bizikaltatea hobetzen laguntzen du.

2.1 ATXIKITZEKO BALDINTZAK

Programa honi atxikitze eta bertan parte hartzeko, beharrezkoa da:

- Euskal sektore publikoko erakundea izatea.
- Atxikitze-akordioa erakundeak sinatzea.
- Erakundearen erosketa eta kontratazio publiko berdea gidatu eta koordinatuko duen arduradun bat izendatzea.

2.2 ATXIKITAKO ERAKUNDEEN KONPROMISOAK

Programa honi atxikitzeak honako konpromiso hauek bere gain hartzea dakar euskal administrazioentzat³:

- Urteko lan-plan bat ezartzea programan lehenetsitako eremuetan eta, gutxienez, erakundearentzat interes berezia duen beste eremu batean.
- Kontratazio publiko berdea aztertzea eta administrazioan dauden prozeduretan eta tresnetan integratzea.
- Erakundearen erosketan eta kontratazioan parte hartzen duten langileak prestatzea eta gaitzea.
- Lehentasunezko produktu eta zerbitzu taldeen erosketak eta kontratazioak pixkanaka ingurumen-irizpideetara egokitzea, gutxienez 2030erako Programan ezarritako helburuetara iritsi arte.
- Ingurumen-irizpideen txertaketari buruzko datuak behar bezala betetzen direla bermatzea Euskadiko Kontratazio Publikoa (Kontratazio Publikoa Euskadin) Plataforman. Erakundeak bere lizitazioak plataforma horren bidez kudeatzen ez baditu, urteko jarraipeneko datuak banaka bidaliko dizkio Zuzendaritza Teknikoari⁴.
- Jardunbide egokiak eta esperientziak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuekin partekatzea.

³ Erakunde esleitzaila denean, erakunde sustatzaileek honako konpromiso hauek bete ahal izateko behar diren mekanismoak gaituko ditu.

⁴ Idazkaritza Teknikoak banaka erabili ahal izango ditu emandako datuak, modu agregatuan. Banakako datuak erabili ahal izateko, idazkari teknikoak berariazko baimena eskatuko dio dagokion erakundeari.

2.3 IDAZKARITZA TEKNIKOAREN KONPROMISOAK

Bestalde, Ihobe SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programaren Idazkaritza Teknikoa den aldetik, honako konpromiso hauek hartu ditu:

- Parte hartzen duten administrazioek hartutako konpromisoak lortzeko laguntza eta baliabide teknikoak eskaintzea.
- Euskal administrazioaren erosketan eta kontratazioan parte hartzen duten langileei zuzendutako prestakuntza eta gaikuntza ematea.
- Esperientziak, ikaskuntzak, lorpenak eta erronkak trukatzeko lantaldeak antolatzea, erakundeek ezarritako konpromisoak eta helburuak lortzeko bidean aurrera egin dezaten.
- Euskadiko administrazioak erosketa eta kontratazio publiko berdearen arloan dituen jardunbide egokiak, esperientziak eta emaitzak zabaltzea, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai kanpoan.
- Programaren garapena eta emaitzak urtero jarraitu eta zabaltzea, parte hartzen duten erakunde atxikituek emandako datuetatik abiatuta.

ATXIKITZEKO INPRIMAKIA

..... jaunak/andreak,
..... NAN zenbakia duenak eta egoitza soziala duen
..... erakundearen (kargua) gisa,
..... telefono-zenbakiarekin eta harremanetarako
helbidearekin.

HONELA JARDUNEZ: Botere esleitzailera Erakunde sustatzailea

HAUXE ADIERAZTEN DU:

1. Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programara atxikitzen da.
2. Dokumentu honetan zehaztutako programara atxikitze betekizunak ezagutzen ditu eta horiek onartu eta betetzen ditu.
3. Atxikitze dokumentuan jasotako konpromisoak hartzen ditu.
4. (e)ko kargua eta helbide elektronikoa dituen izendatzen da erakunde honetan, programaren aplikazioarekin lotutako gai guztietan erosketa eta kontratazio publiko berdea zuzendu eta koordinatzeko arduradun gisa.

Horretarako baimena ematen da (e)ko
Hitzarmenaren bidez.

Data eta tokia:

Sinadura:

Atxikitzeo inprimakia sinatu ondoren, hurrengo helbidera bidali beharko da:

IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
EAEko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programaren (2020) Idazkaritza Teknikoa

Helbide elektronikoa: compra.verde@ihobe.eus

Helbidea: Urkixo zumarkalea 36 - 6. solairua, 48011 – BILBAO

Informazio gehiago nahi izanez gero: Idazkaritza Teknikoa: Ihobe SA
Tel.: 94-423 07 43
compra.verde@ihobe.eus
www.ihobe.eus

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa:

Atxikimendu-eskaeran jasotako datu pertsonalak Ekonomia Zirkularraren Arloko tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira.

Arduraduna: Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, IHOBE, SA

- **Xedea:** Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030 Programari atxikitzeo eskaeren kudeaketa eta programaren barruko ekintzen komunikazioa.
- **Legitimazioa:** Eskatzailearen baimena. - Hartzaileak: Datuak programaren bultzatzaile diren Eusko Jaurlaritzako sailekin partekatuko dira, bai eta programari atxikitako gainerako eragileekin ere, Euskadin erosketa berdea sustatzen duten ekintzak eta esperientziak partekatzeko helburuarekin.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatze eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.
- **Informazio gehigarria:** Datuak Babestari buruzko informazio gehigarria eta zehatza gure webgunean kontsulta dezakezu: <http://www.udalsarea21.net/Paginas/Ficha.aspx?Id Menu=09e40489-90d3-4162-8e77-7e322eae4bb4&Idioma=es-ES>

Araudia:

[Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra](#)
[3/2018 Legea, abenduaren Sekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Dijitalak Bermatzeko](#)

